

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

#### **Diputatuen Kontseiluaren 70/2016 Foru Dekretua, azaroaren 15ekoa, Arabako Arrantza Lurralde Kontseilua eguneratzen duena Nekazaritza Sailaren egitura berriaren arabera**

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak onartutako Euskal Herriaren Autonomia Estatu-tuak bere 10.10 artikuluan xedatzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du ehiza eta ibai-aintziretako arrantza arloan. Horrekin bat etorriz, eta Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 27ko 68/1984 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza lurralde kontseiluak eratu ziren.

Eusko Jaurlaritzaren 34/1985 Dekretuaren eta diputatu nagusiaren 884/1985 Foru Dekretuaren bidez (biak martxoaren 5ekoak), arrantza arloko eskumenak eskualdatu zitzaizkion Arabako Foru Aldundiari, Lurralde Historikoen Legea betez.

Era berean, abenduaren 10eko Diputatuen Kontseiluaren 968/1991 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Ibaietako Arrantza Lurralde Kontseilua eratu eta haren osaera ezarri zen.

Diputatu nagusiaren otsailaren 9ko 14/2016 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren egitura berria onartu zen, eta Nekazaritza Sailari esleitu zitzaizkion mendiei, florari eta faunari buruzko eginkizunak eta arloak; hortaz, beharrezkoa da sailen egitura berriak eragindako karguei egokitzea Kontseiluaren osaera.

Horregatik, Nekazaritza Saileko foru diputatuaren proposamenez eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Eguneratzea Arabako Arrantza Lurralde Kontseiluaren egitura, zeina Nekazaritza Sailaren mendekoa baita; hona zer osaera izango duen:

Lehendakaria: Nekazaritza zuzendaria.

Kontseilukideak:

- Mendi Zerbitzuaren burua.
- Ehiza eta Arrantza Atalaren burua.
- Ingurumen eta Hirigintza Saileko ordezkari bat.
- Ordezkaritza zabalena duten Arabako arrantzaleen sozietateen hiru ordezkari.
- Ehiztarien eta Arrantzaleen Defentsarako Elkartearen ordezkari bat.
- Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren ordezkari bat.
- Euskal Herriko Unibertsitatearen ordezkari bat.
- Arabako nekazaritza elkarten ordezkari bat.
- Arabako naturzaleen elkarten ordezkari bat.
- Ordezkaritza zabalena duen Arabako udalen elkartearen ordezkari bat.
- Ordezkaritza zabalena duen Arabako kontzejuen elkartearen ordezkari bat.

– Idazkaria (hitz egiteko eskubidearekin baina botorik emateko eskubiderik gabe): Ehiza eta Arrantza Ataleko teknikariren bat.

Elkarte edo erakunde horietako zuzendaritza organo edo batzarrek beren zuzendariak edo teknikariak izendatu ahal izango dituzte ordezkari, eta aurreko epigrafean zehaztutako ordezkari kopurua, gehienez, joango da betiere kontseiluaren bilkuretara.

Arrantza Lurralde Kontseiluko lehendakariak egoki begitantzen zaizkion aholkulari eta gonbidatuak deitu ahal izango ditu, aitortutako prestigioa izateagatik arlo jakin batzuetan.

Gutxienez, urtean behin bilduko da Arabako Arrantza Lurralde Kontseilua, lehendakariak deituta, arrantza arautzeari buruzko foru agindu proiektuaren gaineko txostena egiteko arrantza denboraldi bakoitzean; baita haren aholkularitza behar dela irizten denean ere.

Bigarrena. Adieraztea Nekazaritza Sailaren organismo aholku emailea izango dela Arabako Arrantza Lurralde Kontseilua, arrantzarekin zerikusia duen edozein arlotarako, eta hauexek izango dira, besteak beste, haren eginkizunak:

Arrantza arautzeko aginduei buruzko txostenak egitea.

Aholku ematea Nekazaritza Sailari arrain aberastasunaren aprobetxamendurako araudiaren inguruan.

Arrantza arloko azterlanak egin daitezela proposatzea Nekazaritza Saileko foru diputatuari.

#### AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Oraingo Arrantza Lurralde Kontseiluak bere eginkizunak betetzeari utziko dio, Arabako Arrantza Lurralde Kontseilu berria eratzen denetik aurrera.

Bigarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio dekretu hau beteazteko egintzak onar ditzan, eta, hain zuzen ere, Kontseiluko idazkaria izenda dezan, izendaturiko pertsonen absentzia kasuetan haien ordezkariak diren funtzionarioak izenda ditzan eta, nekazaritza elkartean eta naturazaleen elkartean artean adostasunik ez dagoenean, haien ordezkariak bakoitza hauta dezan haiek berek proposatutako pertsonen artean.

Hirugarrena. Baldin eta berriz ere eratzen bada Arabako Arrantza Lurralde Federazioa, hura legez eratzen den unetik aurrera Arrantza Lurralde Kontseiluak beste bi kide izango ditu; hain zuzen ere, federazio horren ordezkariak izango direnak.

Laugarrena. Dekretu honek onartze egunetik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratzen den eguna edozein dela ere.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 15a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZALEZ VICENTE**

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*

**EDUARDO AGUINACO LOPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*

**ALFREDO SAEZ DE CASTILLO BELTRAN DE OTALORA**